

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDEAREN PLAN SEKTORIALA (EEBB LPS)

HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

II. Eranskina: 2011/2012 Dekretuaren V. Eranskinaren Formularioa

Urria 2021



AURKIBIDEA

I. SARRERA ETA AURREKARIAK.....	1
I.1 AURREIKUSITAKO PLAN EDO PROGRAMAREN DATU OROKORRAK.....	1
I.2 PLAN EDO PROGRAMAREN AURREKARIAK	6
I.3 PLAN EDO PROGRAMAREN AURREIKUSITAKO IZAPIDETZEA	7
I.4 PLANAREN EDO PROGRAMAREN ONDORENGO GARAPENERAKO TRESNAK	8
II. ADMINISTRAZIO ESPARRUA. ERREFERENTZIAZKO INGURUMEN ZEHAZTAPENAK ETA HELBURUAK IDENTIFIKATZEA	9
II.1 APLIKATU BEHARREKO LURRALDEKO ETA INGURUMENENKO ARAUDIA.....	9
II.2 PLANAREKIN EDO PROGRAMAREKIN LOTUTAKO ESTRATEGIAK ETA PLANAK, GORAGOKO MAILAKOAK, EREMU ANTOLATUKOAK EDO PLANIFIKATUTAKO ARLOKOAK, INGURUMEN EBALUAZIOKO DOKUMENTUAK BARNE.....	11
II.3 ERREFERENTZIAZKO INGURUMEN HELBURUAK IDENTIFIKATZEA.....	13
III. EBALUATU BEHARREKO PLAN EDO PROGRAMAREN LABURPENA	15
III.1 ANTOLAMENDURAKO LURRALDE-EREMUA ETA EZAUGARRI OROKORRAK	15
III.2 PLANIFIKAZIORAKO PROPOSATUTAKO HELBURUEN ETA IRIZPIDE OROKORREN LABURPENA	15
III.3 AINTZAT HARTUTAKO PLANGINTZARAKO AUKEREN DESKRIBAPENA	17
III.4 PLANAREN EDO PROGRAMAREN ZEHAZTAPEN NAGUSIAK	20
IV. ERAGINAK JASAN DITZAKEEN LURRALDE EREMUAREN INGURUMEN EZAUGARRIAK	22
IV.1 INFORMAZIO-ITURRIAK ETA AURKITUTAKO ZAILTASUNAK	22
IV.2 ERAGINAK JASAN DITZAKEEN LURRALDE EREMUAREN INGURUMEN- DESKRIBAPENA.....	22
IV.3 INPLIKATUTAKO LURRALDE EREMUEN INGURUMEN BALORAZIOA. DIAGNOSTIKOA ETA INGURUMEN UNITATE HOMOGENEOAK	31



I. SARRERA ETA AURREKARIAK

I.1 Aurreikusitako plan edo programaren datu orokorrak

Planaren edo programaren izenburua eta xedea

IZENBURUA
EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

XEDEA
<p>Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Estrategikoa egitea, energia berriztagarri mota horren garapena sustatzeko, Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarrien eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren arloan ezarritako helburu estrategikoak betetz; aurreikusitako instalazioen hedapena lurraldean modu ordenatu eta planifikatuan gauzatuta.</p> <p>Hauek dira LPSaren funtsezko helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskadiren independentzia energetikoa sustatzea eta bultzatzea, kanpoko lurraldeekiko mendekotasun energetiko handia murriztuz. • Denboran agorrezinak diren energia autoktonoen erabilera sustatzea. • Euskadiko energia-ekoizpena dibertsifikatzea. • Industria-garapena bultzatzea eta erraztea, energia-kostua murriztuz. • Landa-guneetan energia baliatzeko aukera sustatzea, baliabide berriztagarria bertan dagoelako eta, beraz, ustiapen potentziala eremu horiei baitago lotuta gehienbat, eta horrek landa-ingurunean biztanleria finkatzeko lagungarria izan daitekeelako. • Lurraldea ardaztea eta ekonomia deszentralizatzea. • Euskadiko energia-sektorearen karbono-aztarna murriztea. <p>Ildo horretan, Euskadin energia berriztagarriak garatzeko estrategia arautuko duten <u>irizpideak eta helburuak</u> eta Energia Berriztagarrien LPS honetan ezarritakoaren arabera ibilbide-orria markatzen dutenak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun Euskadin dagoen energia banaketako sare elektrikoa lehenestea, ahal den neurrian, sare horren erabilera bultza dadin linea elektriko berriak egiteko aukeraren aurretik. • Herriguneetan eta landa-guneetan autohornikuntza bultzatzea eta haren aldeko apustua egitea. • Energia berriztagarria ekoizteko instalazioak ingurunean integratzea, ondorio negatibo esanguratsurik egongo ez direla bermatuz. • Erabilgarri dauden teknologia onenak erabiltzea eta I+G bultzatzea. • Ekonomia zirkularraren kontzeptua energia berriztagarrien garapenean sartzea. <p>Zerumugei dagokienez, espazioari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoaren eremura mugatzen da; denborazkoa, aldiz, indarraldi mugagabea du, etorkizuneko berrikuspen eta aldaketen kalterik gabe.</p>

**XEDEA****Aurreikusitako energia-ekoizpena**

ENERGIA	PRODUKZIOA (GWH)
Fotovoltaikoa	2.599,46
Eguzki-energia termikoa	437,05
Eolikoa	7.739,82
Ozeanikoa	323,03
Biomasa termikoa	509,3*
Biomasa elektrikoa	405,9
Geotermia	938
Mini hidraulikoa	455,54
GUZTIRA	13.408,1

*Biomasa termikoa ktep-etan

Aurreikusitako potentzialak lortzeko lotutako inbertsioak

INBERTSIOAREN KOSTUA ENERGIA MOTA BAKOITZEKO (M€)	
TEKNOLOGIA	KOSTUA
Fotovoltaikoa	1.869,8
Eguzki-energia termikoa	403,3
Eolikoa	2.319,18
Ozeanikoa	1.292,12
Biomasa termikoa	801
Biomasa elektrikoa	178,6
Geotermia	1.408
Mini hidraulikoa	21,375

Atmosferara igorri ez diren berotegi-efektuko gasak

BOTA EZ DIREN EMISIOAK (ktCO₂)	
TEKNOLOGIA	BOTA EZ DIREN EMISIOAK
Fotovoltaikoa	668,6
Eguzki-energia termikoa	75,7
Eolikoa	2.012,4
Ozeanikoa	84
Biomasa termikoa	397
Biomasa elektrikoa	105,5
Geotermia	186
Mini hidraulikoa	8,1
GUZTIRA	3.537,3



XEDEA	
Ekidin diren ktep-en analisisia	
EKIDIN DIREN ktep-ak	
TEKNOLOGIA	APROBETXAMENDUA
Fotovoltaikoa	221,14
Eguzki-energia termikoa	32,08
Eolikoa	665,6
Ozeanikoa	27,78
Biomasa termikoa	168
Biomasa elektrikoa	34,9
Geotermia	79
Mini hidraulikoa	2,7
GUZTIRA	1.231,2

IZAPIDE MOTA
<input checked="" type="checkbox"/> Formulazioa <input type="checkbox"/> Berrikuspena <input type="checkbox"/> Berrikuspen partziala <input type="checkbox"/> Aldaketa

TRESNA MOTA
<input type="checkbox"/> Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) <input checked="" type="checkbox"/> Lurralde Plan Sektoriala (LPS) <input type="checkbox"/> Lurralde Plan Partzialak (LPP) <input type="checkbox"/> Plan Sektoriala <input type="checkbox"/> Programa Sektoriala <input type="checkbox"/> HAPO > 7.000 biztanle <input type="checkbox"/> HAPO < 7.000 biztanle <input type="checkbox"/> Bateragarritze-plana <input type="checkbox"/> Sektorekatze-plana <input type="checkbox"/> Plan Partziala <input type="checkbox"/> Plan Berezia <input type="checkbox"/> Beste batzuk, estrategikoak (zehaztu): <input type="checkbox"/> Beste batzuk, zehaztopen georeferentziagarriekin (zehaztu):



ANTOLAMENDU-ESPARRUA

- EAE
- Lurralde historikoa:
 - Araba
 - Bizkaia
 - Gipuzkoa
- Eremu Funtzionala (zehaztu):
.....
- Udalerria (zehaztu, bat baino gehiago bada udalaz gaindikoa):
.....
- Beste batzuk (zehaztu):
.....
- Udalez azpikoa (zehaztu):
.....
 - Udalerria:
.....
 - Esparrua:
.....
 - UTM koordinatuak (poligono sinplifikatu inguratzailea):
.....
 - Azalera:
.....

PLANGINTZAN SARTUTAKO GAIAK: (HAUTAKETA ANITZA)

- Nekazaritza
- Abeltzaintza
- basogintza
- Akuikultura
- Arrantza
- Energia
- Meatzaritza
- Industria
- Garraioa
- Hondakinen kudeaketa
- Uretako baliabideen kudeaketa
- Jabari publiko hidraulikoa edo itsaso lehorrekoa okupatzea
- Telekomunikazioak
- Turismoa
- Lurraldearen antolamendua
- Hirigintza
- Beste batzuk:
 - Biodibertsitatea
 - Klima aldaketa
 - Informazioa eta parte-hartzea
 - Beste batzuk (zehaztu):
.....

**PLANAREN EDO PROGRAMAREN PREMIAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA**

Egungo gizarteak klima-aldaketaren ondorioek maila guztietan eragiten duten jasangarritasun-erronka zailari aurre egin behar dio. Hori dela eta, beharrezkoa da lurralde-plangintza egoki bat egitea Euskadin energia berriztagarriak garatzeko. *Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean* dago araututa plangintza hori, eta lege horren laugarren xedapen gehigarrian ezartzen da Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiten hasi beharko duela. Halaber, *uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituenak*, Energia Berriztagarrien LPS hau egiteko beharra ezartzen du, eta lehen LPS eolikoa (*maiatzaren 14ko 140/2002 Dekretua*) bertan sartzeko aukera ezartzen du, egin den bezala.

PLAN EDO PROGRAMAREN ESKUMENAK LEGITIMATZEA

Gobernu Kontseiluaren 2019ko ekainaren 18an, Energia Berriztagarrien LPSa izapidetzen hastea, eta horri buruzko dokumentazio guztia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari agintzea erabaki zen, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren 16.5 artikuluan* ezarritakoari jarraiki.

DEKRETU HONEN ARABERA INGURUMEN EBALUAZIOA EGIN BEHAR ZAION LEGEZO KASUA

- *Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikulua.*
- *Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6.1 artikulua.*
- *Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 4. artikulua.*

Administrazio-eskumen konkurrenteak

Organo sustatzailea:	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
Behin onarpenaren substantiboa arduraduna:	betiko organo edo Eusko Jaurlaritzaren Kontseilua.
Ingurumen-organoa:	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.



I.2 Plan edo programaren aurrekariak

Hierarkian goragoko mailakoa den plangintza (hala badagokio)

TRESNA	PLANA EDO PROGRAMA BEHIN BETIKO ONARTZEKO DATA	HLE-REN DESKTRIBAPEN LABURRA ETA ZEHAZTAPEN NAGUSIAK
Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak	<i>128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituena</i>	16.5 artikuluan azaltzen da beharrezkoa dela Energia Berriztagarrien LPS bat egitea, honako hauek kontuan hartuta: energia berriztagarriek elektrizitate-sorkuntzan duten partaidetza handitzea, ekoizpen- eta hornidura-azpiegiturak handitzeko beharra, eta Euskadiko berriztagarrietan energia-potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak ezartzea, betiere bateragarria izanik natura-, paisaia- eta kultura-ondarea babestearekin. Gainera, baliabide berriztagarrien inbentario bat egin beharko da, eta azpiegitura horiek ezartzeko behar diren lurzoru-erreserbak identifikatuko dira, behar besteko kopuruan eta gaitasunean, haien erabilera lurraldeko beste erabilera batzuekin bateragarri eginez.
Euskadiko Energia Eolikoaren I. Lurralde Plan Sektoriala	<i>104/2002 Dekretua, maiatzaren 14koa, EAEko energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duena</i>	Euskadin energia eolikoaren garapena antolatzea eta planifikatzea, bertan dauden baliabide eolikoko eremuak identifikatuz eta mota horretako energia garatzeko lurzoru-erreserba egokiak sortuz, betiere lurraldeko balio naturalen eta kulturalen kontserbazioarekin eta beste berezko erabilera batzuekin bateragarri eginez. Era berean, instalazio eolikoak baimentzeari eta ingurumen-ebaluazioari (gutxienezko edukiak eta egin beharreko azterlan espezifikoak barne) eta horien jarraipenari buruzko alderdiak ezartzen dira.



I.3 Plan edo programaren aurreikusitako izapidetzea

Erreferentziazko Dokumentua eskatu aurreko faseen deskribapena

ADMINISTRAZIO EGINTZA	DATA		ORGANO IGORLEA	LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA (ERREF. ARAUDIA)
	Hasiera	Amaiera		
<i>Agindua, 2021eko martxoaren 22koa, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskadiko energia berriztagarrien lurralde-plan sektoriala egiteko prozedurari hasiera ematea erabakitzen duena.</i>	2021eko martxoa		Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila	<i>4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzkoa (17. artikulua) 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen (17.2. artikulua)</i>

PLANA EDO PROGRAMA IZAPIDETZEAN AURREIKUSITAKO ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUA EMAN ONDORENGO ADMINISTRAZIO-EGINTZAK			
Administrazio egintza	Aurreikusitako data	Organo igorlea	Lotutako dokumentazioa
Energia Berriztagarrien LPSaren hasierako onarpena	2021eko otsaila	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Hasierako onarpenaren dokumentua (<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.6 artikulua</i>)
Energia Berriztagarrien LPSaren behin behineko onarpena	2021eko iraila	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Behin-behineko onarpenaren dokumentua (<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.8 artikulua</i>)
Energia Berriztagarrien LPSaren behin betiko onarpena	2021eko abendua	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila	Behin betiko onarpenaren dokumentua (<i>Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 18.2 artikulua</i>)

**Plan edo programa izapidetzean izandako parte-hartze publikoaren deskribapena**

PARTE-HARTZE PUBLIKOKO, JENDAURREKO INFORMAZIOKO ETA KONTSULTETAKO IZAPIDEAK			
Parte-hartze maila	Plana edo programa izapidetzeko fasea	Planaren edukia	Parte hartzeko epea
Handia. <u>Parte-hartze publikoko programa, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikularekin bat datorrena</u>	Entzunaldiko eta jendaurreko informazioko nahitaezko izapideetan ez ezik, parte hartzeko bide irekiak ere ezarriko dira, eta parte hartzeko prozesu edo plan bat diseinatuko da, LPSa onartzeko prozesuarekin batera, zeina etengabe eguneratuko baita eta egoera aldakorretara egokituko.	Fasearen arabera eta <i>martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2. artikuluan</i> ezarritako edukiaren arabera	Irekita

I.4 Planaren edo programaren ondorengo garapenerako tresnak

TRESNA MOTA	DESKRIBAPEN SINTETIKOA	IZAPIDEEN EGOERA	INGURUMEN EBALUAZIOA EGITEA (EAT EDO IIA) (EGINA EDO AURREIKUS DAITEKEENA)
Hirigintza antolamendua	Udal-plangintzak aldatzea eta berrikustea, xedapenetan proposatutako hirigintza-antolamendua egokitzeke	Izapidetze-fase guztiak	Bai



II. ADMINISTRAZIO ESPARRUA. ERREFERENTZIAZKO INGURUMEN ZEHAZTAPENAK ETA HELBURUAK IDENTIFIKATZEA

II.1 Aplikatu beharreko lurraldeko eta ingurumeneko araudia

ARAUDIA	XEDEAK	GARATZEKO IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK
Ingurumena			
<ul style="list-style-type: none"> 3/1998 Legea 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa 	Ingurumena eta paisaia babestea	Garapen iraunkorra, biodibertsitatearen eta paisaia-elementuen kontserbazioa, ingurumen-inpaktuen prebentzioa, LAGen, LPSen eta LPPen garapena.	Helburuak betetzea
Biodibertsitatea			
<ul style="list-style-type: none"> 42/2007 Legea 1/2014 Legegintzako Dekretua 167/1996 Dekretua Espezie mehatxatuak kudeatzeko planak 	Natura babestea	Espezieen, habitaten eta espazioen kontserbazioa	Eragindako espezieen kopurua, eragindako habitaten edo intereseko eremuen azalera eta espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera
Naturgune Babestuak			
<ul style="list-style-type: none"> NBAP, EKZP eta NBak izendatzeko dekretuak Kudeaketa-planak eta Natura 2000 Sareko guneak izendatzeko dekretuak 	Naturgune Babestuak babestea	Naturgune Babestuak babestea, bai habitatak, bai bertan bizi diren espezieak, bai eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak, eta Naturagune Babestuen Sarea sortzea	Gune bakoitzean egindako erabileren kontrola eta hura osatzen duten habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera (fauna-populazioak eta Batasunaren intereseko habitatek okupatutako azalera)
Lurralde- eta hiri-antolamendua			
<ul style="list-style-type: none"> 4/1990 Legea 2/2006 Legea 128/2019 Dekretua LPSak eta LPPak 46/2020 Dekretua 	Lurralde-plangintzako eta -antolamenduko tresnak definitzea. Lurzoruaren erabilerarako lege-esparrua, hirigintza	Lurraldea egituratzea, hiri-antolamendua, lurzoruaren erabilera jasangarria	Arauk eta gidalerroak errespetatzea. Hierarkian gorago dauden planen helburuekiko koherentzia
Uren babesa			
<ul style="list-style-type: none"> 1/2006 Legea 	Uraren garrantzia bizi-baliabide gisa eta gizarte- eta ingurumen-ondasun gisa	Ur-masen kontserbazio-egoera ona mantentzea edo lehengoratztea	URAREN mugak, atzerapena jasandako guneak, Jabari Publiko Hidraulikoaren Mantentzea



ARAUDIA	XEDEAK	GARATZEKO IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK
Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola			
<ul style="list-style-type: none"> • 4/2015 Legea • 34/2007 Legea • 22/2011 Legea • 37/2003 Legea • 278/2011 Dekretua 	Lurzoruaren, atmosferaren, zarataren eta hondakinen kudeaketaren kutsaduraren prebentzioa	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak aztertzea eta kudeatzea, kutsatzaileen isuriak saihestea edo minimizatzea	Legediak ezarritako mugak betetzea
Ingurumen Ebaluazio estrategikoa			
<ul style="list-style-type: none"> • 211/2012 Dekretua • 21/2013 Legea eta ondorengo aldaketak • 23/2020 Errege Lege-dekretua • 36/2020 Errege Lege-dekretua • 3/1998 Legea 	Planak eta programak ebaluatzeko prozedura	Planen eta programen ingurumen-ondorioen ebaluazioa eta ondorio negatiboak saihesteko edo minimizatzeko neurrien proposamena	Ingurumen-organoak aldeko ebazpena ematea
Jasangarritasun Energetikoa			
<ul style="list-style-type: none"> • 4/2019 Legea • 254/2020 Dekretua 	Euskadiko Jasangarritasun energetikoa	Jasangarritasun energetikoaren arauen zutabeak ezartzea eremu publiko eta pribatuetan, bete beharreko oinarrizko eginbeharrak eta betebeharrak artikulatuz, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko neurrietara bideratuta	<ul style="list-style-type: none"> • Energia-kontsumoa • Energia berriztagarrien azken kontsumoaren % • Jasangarritasun-ziurtagiria hobetu duten eraikinen % • Erregai ez-fosilak erabiltzen dituzten ibilgailuen %



II.2 Planarekin edo programarekin lotutako estrategiak eta planak, goragoko mailakoak, eremu antolatukoak edo planifikatutako arlokoak, ingurumen ebaluazioko dokumentuak barne

TRESNAK	ADMINISTRAZIO-EGOERA	ZEHAZTAPEN NAGUSIEN ETA INGURUMEN EBALUAZIOEN LABURPENA
Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia	Onartua	Estrategiaren helburuak dira Euskadiko berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea 2005. urtearekin alderatuta, gutxienez % 40 2030ean eta % 80 2050ean. Halaber, proposatzen da 2050ean energia berriztagarrien kontsumo-kuota azken kontsumoaren % 40koa izatea, eta lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren aurrean.
Euskadiko Energia Estrategia 2030	Onartua	Estrategia horretan, energia berriztagarriek eta energia-eraginkortasunak funtsezko rola hartzen dute giza jardueren ingurumen-inpaktua arintzeko tresna gisa, energia-eraginkortasunaren arloko jarduketak sektore kontsumitzaile guztietan areagotuz eta azken energia-intentsitatea % 33 hobetuz. Horrela, 2030ean petrolioaren azken kontsumoa % 18 murriztu nahi da 2015arekin alderatuta, eta 2030ean energia berriztagarrien aprobetxamenduak % 21eko azken kontsumoa lortzea. Intereseko habitatak eta natura-intereseko beste elementu batzuk babestea, Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren arabera (2016ko uztailaren 4ko Ebazpena).
2030rako Biodibertsitate Estrategia	Onartua	Natura-ondarearen arloko lehentasunak eta konpromisoak ezartzen ditu, 2030ean jarritako horizontearekin, eta lurreko ekosistemen erabilera jasangarria, lurzoruen babesa eta dibertsitate biologikoaren galera geldiaraztea sustatzen ditu.
Paisaiaren zehaztapenak	Guardiako, Balmaseda-Zallako eta Zarauzko eremu funtzionaletan onartua	Zenbait irizpide edo jarraibide ezartzen dituzte eremu funtzional bakoitzeko paisaiaren kontserbazioa bermatzeko, bereziki paisaiainpaktuekiko sentikorrek diren eremuetakoa (instalazio eolikoek eragindako aldaketa geomorfologikoak saihestea, pinuen monolaborantzako baso-ustiategiak mugatzea, espezie autoktonoak erabiltzeko betebeharra, etab.).
Paisaiaren aldeko Ekintza Planak	47 plan lurraldeko udalerrri askotan idatziak eta 12 idazketa-fasean	Paisaia kudeatzeko goiko tresnetatik jasotako gomendioak (paisaiaren katalogoak, zehaztapenak), paisaia babesteari eta paisaia-balioetan eragina duten erabilerak mugatzeari buruzkoak (aldaketa geomorfologikoak, espezie autoktonoen erabilera, etab.)
Geodibertsitatearen Estrategia 2020	Onartua	Bi helburu nagusi: <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko geodibertsitatea eta haren ondare geologikoa aztertzea eta balioztatzea, "EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan" identifikatuta. Kudeaketaren arloan esku hartzeko irizpideak eta proposamenak ezartzea.



TRESNAK	ADMINISTRAZIO-EGOERA	ZEHAZTAPEN NAGUSIEN ETA INGURUMEN EBALUAZIOEN LABURPENA
Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020	Onartua	Helburu hauek dituzten jarduerak programatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • Hondakin gutxiago sortzea • Gaikako bilketa, birziklapena eta balioespena hobetzea • Hondakinen ezabaketa optimizatzea • Informazioa eta gardentasuna hobetzea
Airearen Kalitatearen Ekintza Planak	9 plan onartu dira lurraldeko hainbat udalerrri, eskualde edo zona geografikotan	Azken urteotan, udalerrri edo eremu geografiko batzuetan hainbat ekintza-plan egin dira, eta horietako gehienak PM10 partikulen mailak murriztera bideratuta daude, eguneko muga-balioa gainditu den puntuetan.
Euskal Baso Plana 1994-2030	Onartua	Euskal Autonomia Erkidegoko Baserrialdeetako Plan Estrategikoa garatzen du. Plan horren helburua baso-mendien aniztasuna eta iraupena bermatzea da, baso-lurraldea mugatuz, ordenatuz eta antolatuz, Basoak Kudeatzeko Gidalerro jasangarrien bidez. Gidalerro horiek sektorea kohesionatzeko eta baso-ekintza landa- eta hiri-gizartearekin lotzeko behar diren azpiegiturak emango dituzte.
Kultura Plana 2019-2022	Onartua	Konpromiso gisa hartzen da euskal kulturaren memoria zabaltzea eta biziberritzea, 5 ekimenen bidez; besteak beste, kultura-ondarearekin lotutako araudia eguneratzea eta ondarea babesteko politikak eguneratzea, sektore berrietara zabalduz.

II.3 Erreferentziako ingurumen helburuak identifikatzea

TRESNAK	IDENTIFIKATUTAKO INGURUMENEO HELBURUAK	APLIKAGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA	GARATZEKO IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	EZARRITAKO EDO PROPOSATUTAKO MUGAK
Lurraldearen Antolamendura ko Gidalerroak	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura berdearen eta zerbitzu ekosistemikoen arloko gidalerroak Energiaren arloko gidalerroak (aprobetxamendu berriztagarrietarako lurzoru-erreserbak eta lurzorua erabilera lurraldeko beste erabilera eta zerbitzu ekosistemikoekin bateragarri egitea) 	Plangintzan biodibertsitatearen aldagaia lurralde- eta hirigintza-plangintzan txertatzeko beharra, natura-ondareak, geodibertsitatea barne, ematen dituen onura sozioekonomiko-ingurumeneko-kulturalei balioa emanez	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura berdea definitzea Energia berriztagarrien LPSaren edukiak, instalazio berriztagarriak lurraldeko beste erabilera batzuekin bateragarri egiteari dagokionez (nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-erabilerak, ingurumenaren babesak) 	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura berdearen aldagaia Erabilerak bateragarri egitea 	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura berdea (natura- intereseko eremuak, korridore ekologikoak, etab.) LPSean sartzea. Zonakatzeko eraginkorra ezartzea, energia berriztagarrien garapena eta Euskadiko natura-, kultura- eta ekonomia-ingurunearen kontserbazioa bateragarri egiteko.
Klima Aldaketaren Estrategia 2050	<ul style="list-style-type: none"> BEG isurketak murriztea Lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren aurrean 	LPSak klima-aldaketari aurre egiteko irizpideak jasotzen ditu	<ul style="list-style-type: none"> Energia berriztagarrien sustapena Klima-aldaketaren arriskua txertatzea 	<ul style="list-style-type: none"> BEG isurketak Energia berriztagarrien garapena Berotze globalaren ondorioak azpiegitura berriztagarrietan 	<ul style="list-style-type: none"> Klima Aldaketaren 2050erako hartutako Estrategian konpromisoak
2030erako Euskal Energia Estrategia	<ul style="list-style-type: none"> Energia berriztagarrien aprobetxamendua handitzea Energia-eraginkortasuna arlo guztietan hobetzea 	LPSak energia berriztagarriak sustatuz eredu energetikoa aldatzeko irizpideak jasotzen ditu	<ul style="list-style-type: none"> Deskarbonizazioa Energia garbiak eta berriztagarriak erabiltzea Eraginkortasuna eta aurrezpena 	<ul style="list-style-type: none"> Energia garbiak erabiltzea Etxebizitzan eta tresna elektrikoaren efizientzia-maila 	<ul style="list-style-type: none"> 2030erako Euskal Energia hartutako Estrategian konpromisoak

TRESNAK	IDENTIFIKATUTAKO INGURUMENKO HELBURUAK	APLIKAGARRITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA	GARATZEKO IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK	EZARRITAKO EDO PROPOSATUTAKO MUGAK
Euskadiko 2030erako Ekonomia Zirkularraren Estrategia	<ul style="list-style-type: none"> Material zirkularraren erabilera-tasa handitzea Hondakinak sortzeko tasa murriztea Ekonomia zirkularraren arloan enpleguak sortzea 	Lehengai berriztagarriak erabiltzea eta instalazio berriztagarrien azpiproduktuak eta hondakinak berrerabiltzeko eta balioesteko irizpideak hartzea	<ul style="list-style-type: none"> Lehengai berriztagarriak eta/edo material zirkularra erabiltzea Hondakinak sortzea Enplegu zirkularra sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Material zirkularraren eta/edo berriztagarriaren erabilera tasa Hondakinaren sorrera tasa Ekonomia zirkularrari lotutako enplegua 	<ul style="list-style-type: none"> Material zirkularraren erabilera-tasa bikoiztea BPGren unitate bakoitzeko sortutako hondakinaren tasa % 40 murriztea Ekonomia zirkularraren esparruan 3.000 enplegu baino gehiago sortzea
Natura 2000 Sarea	Batasunaren intereseko habitaten eta espezie-populazioen kontserbazio-egoera ona mantentzea edo lehengoratztea	Energia berriztagarrien garapena Natura 2000 Sarean sartutako espazioekiko egokia eta bateragarria den baloratzen da	<ul style="list-style-type: none"> Europako habitat eta espezie mehatxatuenak babestea Plan eta proiektu berriztagarriek Natura 2000 Sarean dituzten ondorioak ebaluatzea Gune horietan energia berriztagarrien garapena arautzea, betiere espazio hauek eta beren berezko balioen aldeko kontserbazioa bermatuta. 	<ul style="list-style-type: none"> Batasunaren intereseko habitaten azalera Kontserbazio-egoera Elektrizitate berriztagarriko jardueren ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Azalera mantentzea/handitzea Habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzea Zenbait instalazio berriztagarri garatzeak espazioen kontserbazio-egoera arriskuan jartzen ez duela bermatzea
Uraren Esparru Zuzentaraua eta Plan Hidrologikoa	Ur-masen kontserbazio-egoera ona mantentzea edo ezartzea	Ur-masak dauden eremuak baztertzeko eta baldintzatzeko irizpideak ezartzea, energia berriztagarriak garatzeko	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumen helburuak betetzea Energia-aprobetxamendu berriztagarriko eskariei erantzutea eta erabilerak arrazionalizatzea Segurtasuna muturreko fenomenoaren aurrean 	<ul style="list-style-type: none"> Eskura dauden baliabideen bilakaera Muturreko fenomenoek eragindako ondorioak 	<ul style="list-style-type: none"> Eremu babestuek zaintzea Emari ekologikoen erregimenak betetzea

III. EBALUATU BEHARREKO PLAN EDO PROGRAMAREN LABURPENA

III.1 Antolamendurako lurralde-eremua eta ezaugarri orokorrak

DESKRIBAPENA
<p>Aplikatu beharreko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da (EAE). Euskadik bat egiten du Kantauri Itsasoarekin iparraldeko isurialdean, eta bi mendigune garrantzitsu ditu alboetan: Pirinioak ekialdean eta Kantauri mendikatea mendebaldean. Horregatik, azalera txiki samar batean (7.234 km²), paisaia eta bizimodu oso desberdinak daude.</p> <p>Lurraldea bi isurialdetan banatuta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kantauriko isurialdeak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako iparraldea) erliebe malkartsua du, eta landazabaleko paisaia du ezaugarri, mendi-mazeletan sakabanatutako baserri, belardi, pinu eta hostozabalen basoekin; herriak eta industria- eta komunikazio-azpiegiturak, berriz, ibar-hondoetan daude. Nabarmendu behar da isurialde hau oso antropizatuta dagoela XVIII-XIX. mendeko industria-garapenaren ondorioz; izan ere, bertan, baso autoktonoen eremu asko gune industrializatuek, hiriguneez eta aprobetxamenduko baso-landaketek ordezkatu dituzte. • Isurialde mediterraneoan (Araba), erliebe leunagokoa, Arabako Errioxako laborantza zerealista eta intentsiboak dira nagusi, muinoekin eta hostozabalen basoak dauden mendiekin tartekatuta. Zonalde honetan, industria-garapena nabarmen txikiagoa da, eta industrialdeen eta hiriguneez dentsitatea murriztu egiten da. <p>Inguruneen aniztasun horren ondorioz, dibertsitate geologiko eta biologiko handia dago, eta horien kontserbazioa naturagune babestuen sareak babestuz eta kudeatuz bermatzen da.</p> <p>Euskadiko populazioa 2.188.170 biztanlekoa da guztira (Eustat 2019), eta biztanleria-dentsitatea oso handia da, gutxi gorabehera 302 bizt./km². Ekonomiari dagokionez, BPG per capita 35.200 eurokoa da (Eustat 2018), eta Euskadi Europar Batasuneko eskualde aitzinatuenetako bat da, industria-sektore aurreratuarekin eta hirugarren sektoreko pisu gero eta handiagoarekin.</p>

III.2 Planifikaziorako proposatutako helburuen eta irizpide orokorren laburpena

PLANAREN FUNTSEZKO HELBURUAK ETA GARATZEKO IRIZPIDEAK	
XEDEA	GARATZEKO IRIZPIDEAK
Lurralde jasangarria	Lurraldearen iraunkortasuna hobetzea, Euskadin potentzial handia duten energia berriztagarriak bultzatzeari, antolatzeari eta planifikatzeari esker. Horretarako, LPSak bat egiten du hainbat estrategia eta planetan ezarritako helburuekin, eta energia berriztagarrien garapena sustatzen du, energia berriztagarriaren eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztearen arloko helburu eta xede guztiak lortzen laguntzeko (Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, Energiaren eta Klima Aldaketaren Paketea, Energia Berriztagarrien Plana (2011-2020), Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratua (EKPNI) 2030, 3E2030 Euskal Energia Estrategia 2030 eta Klima Aldaketaren Euskal Estrategia 2050).

PLANAREN FUNTSEZKO HELBURUAK ETA GARATZEKO IRIZPIDEAK	
XEDEA	GARATZEKO IRIZPIDEAK
Lurralde energetikoki independentea eta lehiakorra	Gaur egun, Euskadi kanpoaldearen mende dago guztiz energiaren arloan; izan ere, ohiko elektrizitate-sorkuntzan erabiltzen diren baliabide fosilak (petrolio, gasa, ikatza) oso urriak dira, lurraldean existitzen ez direla ez esatearren. Horregatik, energia berriztagarriak antolatuz eta planifikatuz, Euskadin independentzia energetikoa sustatu eta bultzatu nahi da, kanpoko mendekotasun energetiko handia murriztuz eta ekoizpen energetikoa dibertsifikatuz, bai eta garapen industriala bultzatu eta erraztu ere, kostu energetikoa gutxituz eta sektore energetikoaren karbono-aztarna txikituz.
Lurralde deszentralizatua	Landa-guneetan energia baliatzeko aukera sustatzea, baliabide berriztagarria bertan baitago eta, hortaz, haren ustiapen potentziala eremu horiei lotuta dagoelako gehienbat; horrek landa-ingurunean biztanleria finkatzen lagun dezake, eta, ondorioz, lurraldea egituratzen eta ekonomia deszentralizatzen.

PLANAREN INGURUMEN HELBURUAK ETA GARAPEN IRIZPIDEAK	
XEDEA	GARATZEKO IRIZPIDEAK
Klima-aldaketaren aurka borrokatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia handitzea • Karbono gutxiko energia ereduak sustatzea • Lehen sektoreko erresilientzia handitzea eta haren isurketak txikitzea • Energia berriztagarriak muturreko jazoetara egokitzeko gai direla ziurtatzea
Paisaia babestea	<ul style="list-style-type: none"> • Paisaia energia berriztagarrien garapenean integratzea • Paisaiari balioa ematea kalitatearen erakusgarri gisa, gizartearen, ekonomikaren, kulturaren eta ongizatearen ikuspegitik
Natura-ingurunea babestea	<ul style="list-style-type: none"> • Energia berriztagarriak garatzeko lurzoru-erreserbak jartzea, instalazioak ingurunean integratzea lortzeko ingurumen-irizpideak sartuta, ondorio negatibo nabarmenik ez dagoela bermatuta. • Gaur egun Euskadin dagoen energiaren banaketa-sare elektrikoa optimizatzea, ahal den neurrian, horren erabilera bultzatzeko linea elektriko berriak egitearen aurretik.
Hobekuntza teknologikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilgarri dauden teknologia onenak erabiltzea eta I+G bultzatzea • Ekonomia zirkularreko irizpideak gehitzea energia berriztagarriak ezartzean, erabiliko diren materialak aldeztu aurretik hautatuz, eta sortutako hondakinak balioestea eta berrerabiltzea sustatuz
Landa-ingurunea mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> • Hiriguneetan eta landa-guneetan autohornikuntzaren aldeko apustua eta bultzada • Landa-izaerako jarduerak (artzaintza, laboreak, etab.) energia berriztagarrien garapenarekin bateragarri egitea • Nekazaritza- eta baso-sektoreetan karbono gutxiko eta klima-aldaketara egokitzeko gai den ekonomia batera igarotzea sustatzea



PLANAREN INGURUMEN HELBURUAK ETA GARAPEN IRIZPIDEAK	
XEDEA	GARATZEKO IRIZPIDEAK
Jasangarritasun energetikoa	<ul style="list-style-type: none"> Jasangarritasun energetikoaren gidalerroak integratzea eta onartzea, <i>Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean</i> ezarritakoari jarraiki

III.3 Aintzat hartutako plangintzarako aukeren deskribapena

IRIZPIDE TEKNIKOAK, JUSTIFIKAZIOA
<p>Energia Berriztagarrien LPS honi dagokionez, teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren aukeren azterketa ondoko hiru gai zehatzetan oinarritu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Joera-egoerari eustean edo bultzatzeko politika aktiboetan oinarritutako alternatibak Energia berriztagarriak garatzeko balizko egoerei buruzko aukerak, aprobetxamendubanaketa desberdinak baloratuz energia berriztagarri motaren arabera Hainbat ikuspuntutatik (garatzailea, jasangarria eta kontserbazionista) zonakatzeko aintzat hartutako irizpideei buruzko aukerak

Proposatutako aukera bideragarrien ingurumen ezaugarriak zehaztea

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATZEKO BALIZKO JOKALEKUEI BURUZKO AUKERAK

AUKERAK, IZENA
A aukera, joera-jokalekua (edo 0 aukera edo Energia Berriztagarrien LPS ez egitea)
Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena
<p>Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala ez egiteko aukera honek <i>Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen</i> laugarren xedapen gehigarria eta Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Plana egiten hasi beharko duela ezartzen duten LAGak ez betetzea ekarriko luke.</p> <p>Ondorioz, ez litzateke posible izango EAEko hainbat estrategietan azaldutako berriztagarrien kuotak lortzea (2030erako Euskadiko Energia Estrategia, 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia), ezta lurraldearen erresilientzia hobetzea klima-aldaketaren aurrean edo energia-sektorearen independentzia handiagoa lortzea ere, ezta landa-gunea bultzatzea autohornikuntzari eta enplegua sortzeari esker.</p>



AUKERAK, IZENA
B aukera, politika aktiboen jokalekua
Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena
<p>Egoera horrek aktiboki bultzatzen du energia berriztagarrien garapena, euskal ekonomiaren deskarbonizazioa eraginez eta, aldi berean, kanpoko energiaren mendetasuna txikituz, Euskadiko energia-estrategiaren funtsezko ardatzetako bat gauzatuz. Horixe da Energia Berriztagarrien LPS honetan biltzen den balizko egoera, eta honek aukera emango du aldi bereko energia politiken helburuak eta xedeak betetzeko, European, estatuan, zein Euskal Autonomia Erkidegoan.</p>
B.1 aukera: Suspertzean soilik oinarritutako pizgarria
<p>Aukera hau gaur egun dauden instalazio berriztagarriak berrindartzean baino ez litzateke oinarrituko, teknologia bakoitzaren egungo egoerarekin bat datozen ekipoak ordezkatzuz.</p> <p>Aukera hau baztertu egin da; izan ere, ingurumen-ondorio positiboak baditu ere, hala nola obra zibileko azpiegituren eta azpiegitura elektrikoaren eragina murriztea, lehendik daudenak aprobetxatzearen, instalazioak suspertzeak edo berrindartzeak ez du berez ahalbidetzen instalatu beharreko potentzial berriztagarriaren arloan helburuak lortzea. Gainera, egungo teknologiarekin indartzeko zenbait zailtasun daude, murrizketa orografiko eta ingurumen-arlokoak baitaude egun leku askotan.</p>
B.2 aukera: B1 + energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioak bultzatzea, egungo LCOE hoberekin
<p>Alternatiba hau energia-instalazio berriztagarrien garapenean oinarrituko litzateke, baldin eta hauen helburua energiaren banaketa eta/edo salmenta baino ez bada, autokontsumo-instalazioak eta bero- eta hotz-sareak (DH) garatu gabe.</p> <p>Baztertu egin da alternatiba hau; izan ere, nahiz eta energia-helburu berriztagarriak lor litezkeen, ez da efizientea ingurumenarekin eta gizartearekin lotutako alderdietan. Izan ere, aukera horrek energia banatzeko sare trinko bat sor lezake, eta horrek ingurumen-eragin nabarmenak izan ditzake, eta, gainera, nekez lortuko litzateke urruneko landa-guneen arteko konexioa ziurtatzeko aukera. Gainera, autokontsumorako bultzadarik aurreikusten ez duen alternatiba honek, lursail naturala/landatarren okupazio askoz ere handiagoa ekarriko luke berekin, nahi diren helburuak lortzeko</p>
B.3 aukera: B2 + autokontsumoaren bultzada/beroa eta hotza sareak
<p>Alternatiba honek autokontsumoa sustatzeko politikak barne hartzen ditu, eta, aldi berean, energia-instalazio berriztagarriak garatzen ditu, egungo energia-kostu parekatu onenak dauzkaten teknologiak (LCOE) soilik ardatz hartuta.</p> <p>Aukera honek aurrerapauso handia ekarriko luke garapen jasangarriko helburuen arloan, eta, are gehiago, berez bete ahal izango lituzke ezarri nahi diren helburu potentzialak, autokontsumoaren onura guztiak barne hartuta. Alabaina, gaur egun errentagarrienak diren industria-teknologia berriztagarriak bakarrik laguntzen ditu, hala nola eolikoa eta eguzki-energia fotovoltaikoa; beraz, inbertsoreen eta ikertzaileen ahalegin guztiak alde batera utziko lituzke beste teknologia batzuk, zeinak, gaur egun LCOE doitu ez badute ere, etorkizunean euskal lurraldearen errealitatean garatu eta egokitu baitaitezke.</p>
B.4 aukera: B3 + hainbat teknologia duten eskala handiko ekoizpeneko instalazio energetiko berriztagarrien mixa
<p>Aurrekoaren antzeko aukera da, baina teknologia berriztagarri bat baino gehiago biltzen ditu, heldu eta finkatuenekin hasi eta oraindik ere garatzen ari direnekin buka.</p> <p>Alternatiba honek aurreko alternatibaren onura guztiak dakartza, baina, horrez gain, oraindik garatzen ari diren teknologien berrikuntza eta ikerketa bultzatzen ditu; hortaz, energia berriztagarri motaren arabera instalatu beharreko potentzialaren banaketa proportzionala izan beharko da teknologia bakoitzaren egungo egoerarekiko eta Euskadiko baliabide berriztagarri mota bakoitzaren egungo potentzialarekiko. Biltzen dituen onura guztiengatik, hautatutako aukera da.</p>

**ZONAKATZERAKO KONTUAN HARTUTAKO IRIZPIDEEI BURUZKO AUKERAK**

AUKERAK, IZENA
B.4.1 aukera: Garapenaren aldeko ikuspegia
Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena
<p>Energia berriztagarrien garapen bizian oinarritutako ikuspegi desarrollista da, eta aplikatu beharreko araudian debeku zorrotzak eta berariazkoak dituzten eremuak soilik hartuko lirateke aprobetxamendu berriztagarritik baztertutako gunetzat.</p> <p>Baztertu egin da ikuspegi hau; izan ere, sustapen bakoitzaren bideragarritasuna proiektu-fasearen esku uztea dakar, ingurumen-alderdiei dagokienez, eta horrek nolabaiteko segurtasun juridikorik eza ekar lezake instalazio berriztagarrien ingurumen-izapidetzeetan (baita sektorialetan ere). Horrez gain, ez da egokitzen LPS honetan definitutako printzipio eta helburuetako batera, hots, lurralde bakoitzeko ingurumen-balioekin eta errealitatearekin bateragarria den garapenera.</p>

AUKERAK, IZENA
B.4.2 aukera: Ikuspegi jasangarria
Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena
<p>Ikuspegi honetan energia berriztagarrien garapena sustatzen da kontuan hartuta lurralde bakoitzaren harrera-gaitasuna eta energia berriztagarri mota bakoitzak ingurumen balioen aldetik dituen berezko ahuleziak. Zonakatzeak bazterketa-zonak jasoko lituzke, araudian berariazko debekuak dituzten zonez gain, bai eta EBk 2000. urtean arriskua kudeatzeko onartutako ingurumen-zuhurtziaren printzipioa jarraituta, garapen berriztagarriak bateragarritasuna bermatuko ez lukeen zonak.</p> <p>Bestalde, eremu ezin hobekak zehazten dira eta proiektuen ondorioen ingurumen-ebaluaziorako preskripzio batzuk ezartzen dira. Aukera hori izango da hautatutako alternatiba, uste baita ekimen pribatua bultzatuta segurtasun juridikoa gehitzen dela, potentzial optimo guztia garatu baitaiteke, lotutako onura guztiekin, Euskadiko ingurumen-eta lurralde-balioak behar bezala kontserbatzeari kalterik egin gabe.</p>

AUKERAK, IZENA
B.4.3 aukera: Ikuspegi kontserbazionista
Kongruentzia, proportzionaltasuna eta ekarpena
<p>Kasu honetan, ikuspegi honek energia berriztagarrien garapena oso eremu puntualetara mugatzen du, uste baitu instalazio berriztagarrien eragina ez dela bateragarria ingurumen-balio gehienekin, eta irizpide bat ezartzen du non aurretiaz ingurumen-ondorio esanguratsurik ez dagoela bermatzen duen ebaluazio egoki bat egiten den kasuetan ere, zenbaitetan instalazio horiek gauzatzeko aukera alboratzen duen.</p> <p>Aukera hori baztertu egin da energia berriztagarrien garapena murrizten delako, energia horien berezko onurak gabetuz eta ekonomia karbonizatu baten eragin negatiboak indartuz, horrek azkenean ingurumen-inpaktu handia eragiten duelarik, atmosferarako BEGen emisioak iraunarazteak eragindako klima-aldaketaren ondorioz.</p>



III.4 Planaren edo programaren zehaztapen nagusiak

IZENA	DESKRIBAPEN LABURRA
Zonakatzea. (Esparrua)	<ul style="list-style-type: none"> • Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioei aplikatzen zaie, baldin eta, beren eraikuntza-ezaugarrien ondorioz (tamaina, diseinua, kokapen-lehentasunak, etab.), lurraldean inpaktu handiena eragiten badute: • Eolikoa: energia husteko eta saltzeko sarera konexioa duten haize-sorgailu batek edo gehiagok osatutako eskala handiko produkzioko parke eolikoei buruzkoa. • Fotovoltaikoa: eskala handiko ekoizpeneko lur gaineko eguzki-baratzeak, 10 ha-tik gorako okupazio-azalerako energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta daudenak. • Biomasa eta geotermia: energia elektrikoaren eskala handiko ekoizpeneko zentraleri buruzkoa, energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta. • Ozeanikoa: autonomia-erkidegoaren eskumeneko eremuetan kostaldean kokatutako instalazioetatik sortutako energiari soilik dagokio, portuetako edo kai-muturretako undimotrizitate-motakoa. • Mini hidraulikoa: energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta dauden Euskadiko ibilguetako instalazio berriei buruzkoa. Ez da aplikatzen egun baimenduta dauden instalazioak birgaitzeko. <p>Zonakatze hori ez zaie aplikatzen autohornikuntzako energia berriztagarrien instalazioei edo energia berriztagarriak dituzten bero- eta hotz-sareei (<i>District heating and cooling</i>).</p>
Zonakatzea. Bazterte-eremuak	Energia mota bakoitzerako "bazterketa-eremuetan" eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarrien instalazio energetikoak ezartzea berariaz debekatutako erabilera edo jarduera izango da.
Zonakatzea. Eremu optimo garbiak	<p>Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarrien instalazioak "eremu optimo garbietan" ezartzea erabilera edo jarduera onargarritzat jotzen da, eta zuzenean aplikatuko da Lurralde Plan Sektorial hau indarrean jartzen denetik, hargatik eragotzi gabe sektoreko araudi aplikagarriaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimenak eta lizentziak.</p> <p>Energia eolikoaren kasuan, "eremu optimo garbiak" bi mailatan banatzen dira (1. maila eta 2. maila) baliabide eolikoaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. mailako eremuak urtean 3.350 ordu baliokide garbi baino gehiago dituztenak dira. • 2. mailako eremuak urtean 2.650 eta 3.350 ordu baliokide garbi bitarteko baliabide eoliko duten eremuak dira.
Zonakatzea. Gainerako lurraldea	Euskadiko eremu optimo garbietan eta bazterketa-eremuetan sartzan ez diren gainerako lurraldeetan, eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak ezartzea jarduera edo erabilera onargarria izan daiteke udaleko hirigintza-plangintzak eragozten ez duen eremuetan.
Erabileren araubidea. Erabilera onargarriak	Erabileren zonakatze-matrizearen arabera eremu optimo garbietan bakarrik emango dira erabilera onargarriak, sektoreko araudi aplikagarriaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimen, lizentzia eta baimenei kalterik egin gabe.



IZENA	DESKRIBAPEN LABURRA
<p>Erabileren araubidea. Baimendu daitezkeen erabilerak</p>	<p><u>Eremu optimo garbietan</u> honako erabilera hauek baimendu ahal izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia-aprobetxamendu berriztagarriarekin bateragarriak diren elementuak eraikitzea eta mantentzea, hala nola abere-itxiturak, askak, ereiteak eta landaketak, eta zerbitzu-, nekazaritza- edo baso-ibilgailuek barne-bideak erabiltzea, salbu eta ustiapen-planean berariaz debekatuta badago. <p><u>Eremu optimo garbietan eta bazterketa-eremuetan sartzen ez diren gainerako lurraldeetan</u>, honako erabilera hauek baimendu ahal izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarrien instalazioak ezartzea, erabilera-matrizearen arabera, eta, betiere, udal-, lurralde- eta sektore-plangintzak hori eragozten ez badu.
